

## **UDAL ERAKETAREN AKTA**

### **ZINEGOTZI HAUTATUAK**

#### **Talde politikoa: EUSKAL HERRIA BILDU**

- Egoitz Luisa Urkola
- Ana Eloseggi Artola
- Bakarne Garmendia Usabiaga
- Aitzol Esnaola Zubeldia
- Maialen Mujika Lizaso
- Mikel Olano Aburuza
- Amaia Urkola Arozena

#### **Talde politikoa: EUZKO ALDERDI JELTZALEA / PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ/PNV).**

- Nuria Carbonell Miranda
- Agurtzane Nuñez Yarza
- Aitzol Arocena Zufiria
- Jaime Peón Ormazabal

**Idazkaria:** Erika Sagarzazu Camino

**Egun eta ordua:** 2023ko ekainaren 17an, goizeko 12etan.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2023ko ekainaren 17an, goizeko hamabietan, lehen deialdian, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikuluan xedatutakoa betez, eta Udala eratzeko bilkura egiteko, zinegotzi hautatuak bildu dira. Horiek aurrez aurkeztu dituzte beren kredentzialak, bere nortasuna egiaztatuz, baita bateraezintasun arrazoien, jardueren zein ondare ondasunen aitortpenak ere, Udalbatzako partaideen Interesen Erregistroan jasota geratu direnak.

Adineko Mahaia Jaime Peón Ormazabalek eta Amaia Urlola Arozenak osatu dute, adin gehiena eta gutxiena duten zinegotzi hautatuak izateagatik, hurrenez hurren, Eskualdeko Hauteskunde Batzordetik jasotako ziurtagiriek diotenaren arabera. Lehendakari gisa Jaime Peón Ormazabal aritu da adin gehiena duena izateagatik, eta Idazkari lanetan, Udaleko Idazkaria den Erika Sagarzazu Camino.



Maiatzaren 28an izandako hauteskundeetako emaitzak, Tolosako Hauteskunde Batzardeak bidali ditu eta Mahaiko Lehendakariak emaitza hauek zeintzuk izan diren jakinarazten du:

- Hautesle kopurua	1.552
- Boto emaileak	991
- Boto emaileak hautagaiei	943
- Baliiodun botoak	978
- Baliogabeko botoak	13
- Boto zuriak	35

#### HAUTAGAI BAKOITZAK LORTURIKO BOTO KOPURUA:

- EUSKAL HERRIA BILDU	592 boto	7 hautetsi
- EUSKO ALDERDI JELTZAILEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO	423 boto	4 hautetsi
- PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI- EUSKADI EZKERRA (PSOE)	38 boto	0 hautetsi

Mahaiak zenbatu ditu bertaratutako zinegotzi hautetsiak, behar bezala akreditatutakoak eta nahitaezko aldez aurreko interes-aitorpenak aurkeztu dituztenak, eta, guztiak bertan daudela egiaztatu ondoren, karguen jabetza-hartzei ekin die. Horretarako, Administrazioan kargu edo funtzio publikoez jabetzeko egintzan, Lehendakariak apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan xedatutako ondorengo formula irakurri du:

“... ”

Zin egiten al duzue edo hitzematzen al duzue, zuen kontzientziaren eta ohorearen izenean, zinegotzi-karguaren betebeharrak leialtasunez beteko dituzuela erregearekiko leialtasunez, eta Konstituzioa Estatuaren oinarrizko arau gisa gordeko eta betearaziko dituzuela?

...”.

Zinegotzi hautetsiek, boto gehien dituen kandidaturatik boto gutxien dituenen ordena jarraituz, karguaren zina edo promesa egin dute, HAOLoren 108.8 artikuluan jasotakoa betez, eta karguaren jabetza hartu dute, ondorengo baieztapenarekin:

#### **Talde politikoa: EUSKAL HERRIA BILDU**

- Egoitz Luisa Urkola: “Bai, legeak hala behartuta, zin dagit”.



ANOETAKO  
UDALA

- Ana Elozegi Artola: “Bai, Legeak hala behartuta, zin dagit”.
- Bakarne Garmendia Usabiaga: “Bai, Legeak hala behartuta, zin dagit”.
- Aitzol Esnaola Zubeldia: “Bai, Legeak hala behartuta, zin dagit”.
- Maialen Mujika Lizaso: “Bai, Legeak hala behartuta, zin dagit”.
- Mikel Olano Aburuza: “Bai, Legeak hala behartuta, zin dagit”.
- Amaia Urkola Arozena: “Bai, Legeak hala behartuta, zin dagit”.

**Talde politikoa: EUZKO ALDERDI JELTZALEA / PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ/PNV).**

- Nuria Carbonell Miranda: “Bai, Legeak aginduta”.
- Agurtzane Nuñez Yarza “Bai, Legeak aginduta”.
- Aitzol Arocena Zufiria “Bai, Legeak aginduta”.
- Jaime Peón Ormazabal “Bai, Legeak aginduta”.

Taldeen parte hartzea amaitu ondoren, mahaiak KORPORAZIOA FORMALKI ERATUTZAT JO DU.

Ondoren, alkatea hautatzeari ekin zaio eta, horretarako, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. atalean ezarrita dagoen arautegiarekin adostasunean, alkate izateko ondoko zinegotzi hauek izendatu dira hautagai:

**HAUTAGAIAREN IZENA / TALDE POLITIKOA**

EGOITZ LUISA URKOLA  
NURIA CARBONELL MIRANDA

EH BILDU  
EAJ/PNV

Lehendakariak proposatuta eta hautetsien onespenearekin, eskua jasota egin dute botazioa.

Bertaratutako zinegotziek bozketa egin dute eta ondorengo da lortutako emaitza:

**HAUTAGAIAREN IZENA/ EMAN ETA LORTURIKO BOTUAK**

EGOITZ LUISA URKOLA  
NURIA CARBONELL MIRANDA

7 boto  
4 boto



Beraz, bozketaren emaitza ikusita, **EGOITZ LUISA URKOLA**, EUSKAL HERRIA Bildu talde politikoko hautagai-zinegotzia, **UDAL HONETAKO ALKATE IZENDATU DA.**

Adin Mahaiko Lehendakariak mahaiburuan esertzeko eta karguaz jabetzeko adierazi dio, karguaren zina edo promesa egin ondoren. Horretarako, 707/1979 Errege Dekretuan jasotako galdera egin zaio berriro, oraingoan alkate-karguaren betebeharren gainean, eta honako hau erantzun dio: “Bai, Legeak hala behartuta, zin dagit”.

Ondoren, Pedro María Estanga Lasak esku-makila eman dio eta, une horretatik aurrera, alkate karguaz jabetu da Udalbatza osoaren aurrean, indarrean dauden xedapenek ematen dioten eskumen, eskubide eta betebeharrekin.

Azkenik, alkateak hartu du hitza, besteak beste, bertaratutakoei eta konpromiso horretan lagundu duten guztiei eskertzeko emandako babesari; halaber, ezkertiar alderditik orain arte lanean aritutakoei egindako lana eskertu die, eta zinegotzi hautetsiak ildo beretik jarraitzera animatu ditu; azkenik, jakinarazi du bere taldea jakitun dela aurrerantzean egin beharreko lana ezin dela ez Alkatetzatik ez Udaletik bideratu, baizik eta herritik bertatik abiatu behar dela, eta hala saiatuko dela agindu du.

Bilera amaitutzat ematen da akta honen goialdean adierazitako eguneko goizeko 12:04 minutu direnean. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.

Idazkari Kontu-hartzailea

---

Erika Sagarzazu Camino